



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

HERNANIKO UDALA

Ur eta argi ofizialaren bi lanpostu (129 eta 132.a zkia.) lehiaketa - oposizio askez betetzeko hautaketa prozesuaren lehenengo ariketa.

2022ko maiatzaren 17an Alkate Ebazpen bidez (2022/ 00001042) Hernaniko Udaleko Ur eta Argi Ofizialaren bi lanpostu lehiaketa-oposizio askez betetzeko hautaketa prozesuaren onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi zen. Ebazpen hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2022ko ekainaren 9an (109. zkia.) Hori dela eta, 2022ko abuztuaren 31ko Alkate Ebazpen bidez, honako hau ebatzi da:

—Oposizio Fasea.

Lehenengo ariketaren deialdia.

1. ariketa.

Data: 2022ko irailaren 28an.

Lekua: Hernaniko Kiroldegiko Frontoian.

Ordua: 10:00.

Oposizioaldiaren lehenengo ariketa test erako ariketa izango da, nahitaezkoa eta baztertzailea, gaia zerrendako I. eranskinari buruzkoa. Erantzun okerrak ez dira penalizatuko.

Hernani, 2022ko abuztuaren 31.—Alkatea. (5598)